

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

266/2020 Foru Agindua, azaroaren 3koa. i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk sustatutako proiektu honen interes publikoa adieraztea: "Elvillar STR Laguardia" 13,2/20 kVko aireko linea, "Andrea Marañón" TZ partikularra elikatzea, Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean

I-De, Redes Eléctricas Inteligentes, S. A. U. sozietateak (Iberdrola taldea) obrak egiteko udal lizentzia eskatu dio Guardiako Udalari, Andrea Marañón TZ partikularra elikatzea Bilar DES Guardia 13,2/20 kV-ko aireko linearen proiekturako; hau da, tentsio ertaineko aireko linea elektriko batean tartekatutako beste euskarri bat instalatzea, Carrapáganos aurkintzan, bai eta aireko linea elektriko berria instalatzea ere, Huerta Vieja aurkintzan dagoen landa finka batean eraikiko diren etxebizitza eta nekazaritza biltegia elikatzea.

Guardiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean sartzen dira proiektu tekniko eta udal arkitektoak egindako txostena, non jasotzen baita proiektuak eragina duela udalerrri horretako 5 poligonoko 94 eta 106 lurzatietan eta jabari publiko hidraulikoko lurretan (Rioseco erreka). Lurzatiak lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta daude, eta kalifikazio hau dute: "Ibaiak eta errekek babesteko zona", "Komunikazio eta azpiegitura sareetarako babes edo erreserba zona" (etorkizunean A-124 errepidearen saihebi-dea izango dena) eta "Nekazaritza intereseko eremuak babesteko zona". Udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioetan aurreikusitakoaren arabera, onura publikoko eta interes sozialeko erabilera instalatzea baimentzen da (110., 111. eta 113. artikulua).

Udal txostenean jasotzen denaren arabera, hauek eskatu behar dira: uren zaintzaren arloan eskumena duen organoaren (Ebroko Konfederazio Hidrografikoa) baimena, AFAko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren txostena, instalazioa inbentariatutako bide batetik doalako, eta Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuaren eta Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren baimen bana. Espedientean jasota dago Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Arabako lurralde ordezkariak 2020ko maiatzaren 6an emandako ebazpena, instalazioa baimendu eta proiektua onartzen duena.

Eskaeraren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako. 2020ko urriaren 29an, Natura Ondarearen Zerbitzuak baieztatu txostena igorri du, bertan adierazten diren prebentzio eta zuzentze neurriak betetzeko baldintzaren pean.

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzea babesten duen landa egoeran dagoen lurzoruan, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berriazko jarduerak eta erabilera

batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Irailaren 10eko 205/2020 Foru Aginduaren bidez xedatu zen espedienteari hasierako onespina ematea eta jendaurrean jartzea 20 egunez, agindu hori ALHAOn argitaratzen zenetik hasita. 2020ko irailaren 23ko ALHAOn (108. zenbakian) egin zen argitalpen hori. Horretarako emandako epearen barruan, ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Proiektuaren interes publikoa adierazteko oinarria da Sektore Elektriakoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legea, zeinak 1. artikuluan xedatzen baitu legearen xedea dela sektore hori arautzea, energia elektrikoaren hornidura bermatzeko eta hura kontsumitzaileen beharretara egokitzeko, segurtasunari, kalitateari, eraginkortasunari, objektibotasunari, garentasunari eta kostu minimoari dagokienez. 2.2. artikulua jasotzen duenez, energia elektrikoaren hornidura interes ekonomiko orokorreko zerbitzu bat da; bestalde, 7. artikulua xedatzen du kontsumitzaile guztiek eskubidea izango dutela energia elektrikoaren garraio eta banaketa sareetarako sarbidea eta konexioa izateko Espainia osoan, lege horretan bertan ezarritako baldintzetan.

5. artikuluan xedatzen da hornidura elektrikoari loturiko jardueretarako azpiegitura propioak onura publikokotzat jotzen dituela lege horrek, eta sistema orokortzat hartuko direla; eta 54. artikulua, nahitaezko desjabetzearen ondorioei dagokienez, onura publikokotzat jotzen ditu energia elektriko sortu, garraiatu eta banatzeko instalazio elektrikoak, eta halakotzat hartzen ditu, orobat, arrazoi teknologikoen, ingurumen arrazoien edo energia eraginkortasunaren ondoriozko ordezteak edo aldaketak. 1.2. artikuluan, energia elektrikoaren hornidurarako diren jardueren artean, banaketa jasotzen da. i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresa eskatzailea (Iberdrola taldea) konpainia banatzailea da eta helburua du elektrizitatea bezeroengana eramatea banaketa sareen bidez; horretarako, sare elektrikoaren mantentzeaz arduratzen da, sarearen plangintza eta garapena optimizatzeko.

Horri dagokionez, 6.1.e) artikulua ezartzen duenez, banatzaileak merkataritza sozietateak (edo kontsumitzaileen kooperatibak) dira, eta eginkizuntzat dute energia elektriko banatzea eta energia kontsumo puntuetan kokatzera bideratutako banaketa instalazioak eraiki, mantendu eta erabiltzea, bai eta 40. artikuluan jasotzen diren funtzio guztiak ere. Azken manu horren 1.e) puntuan zehazten denez, banatzaileak arduratzen dira banaketa instalazioak handitzeaz, hornidura elektrikoaren eskari berriei erantzuteko beharrezkoa denean (...).

Aurretik azaldutakoa bat dator aurkeztutako 4.465 zk.ko proiektuaren xedearekin. Horren ondorioz, azpiegitura landa lurretan kokatu beharra haren ezaugarrietatik dator.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk sustatutako proiektu honen interes publikoa adieraztea: 4.465 zk.koa, "Elvillar STR Laguardia" 13,2/20 kVko aireko linea, "Andrea Marañón" TZ partikularra elikatzekoa, Guardiako udalerriko 5 poligonoko 94 eta 106 lurzatiean, lurzoru urbanizaezinean. Hori guztia, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak (Lurzoru eta Hirigintzarena) 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorri.

Bigarrena. Ebazpen honen jakinarazpenarekin batera, Natura Ondarearen Zerbitzuak emandako txostenaren kopia igortzea.

Hirugarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatzeko udalaren baimen egokia lortzeko beharra, eta ez du aurretik juzgatzen udalak eman behar duen ebazpenaren edukia.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean; edonola ere, berraztertze errekurtsua jarri ahalko zaio, nahi izanez gero, egintza eman zuen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin, edo egoki deritzon beste edozein errekurtsu ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 3a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO